

# TOKIKO ENERGIA- KOMUNITATEAK

Tokiko energia-komunitate bat zer den eta horietako batean parte hartzeak zer ondorio dituen ulertzeko gida laburra.



n a i d e r

# ZER DA TOKIKO ENERGIA-KOMUNITATE BAT?

Tokiko energia-komunitateak eredu energetiko berri bat dira, **tokian tokiko energia plaka fotovoltaikoen bidez sortu, erabili eta kudeatzean datzana**, Erkidego horretako eraikinetako teilatuetan. **Herri, auzo, urbanizazio edo industrialdeetako auzo-taldeak dira**, eta beren energia-komunitatea sortzen dute jatorri berriztagarriko energiarekin, lankidetzarekin eta kostu-prezioan.

# NOLA FUNTZIONATZEN DUTE?

Herritarrek hiru modutan parte har dezakete:

- ▶ **Bazkide bideratzailea:** etxeko teilatua, jabekideen erkidegokoa edo industria-nabeko estalkia jartzen ditu komunitatearen esku, horrela eguzki-energia sortu eta erabili ahal izateko. Udalek **bazkide bideratzaile gisa** parte hartzea funtsezkoa da, eta eredu energetiko hori indartzeko ardatzetako bat da; izan ere, herritarren parte-hartzea, txikizkako merkataritzaren inplikazioa eta baliabide publikoak uztartzen ditu.
- ▶ **Bazkide erabiltzailea:** ekoiztako energia erabiltzen duen etxea, merkataritza edo enpresa txikia da. Higiezin horrek energia sortzeko instalaziotik 500 metrora egon behar du gehienez.
- ▶ **Bazkide inbertitzailea:** instalazio fotovoltaikoan inbertitzen duten pertsonak edo erakundeak dira, inbertsioaren **errentagarritasun ekonomikoaren truke**. Ez dute energia hori kontsumitzen, baina proiektua finantzatzen dute. Hasierako inbertsioak herritar erabiltzaileentzat izan lezakeen oztopoa saihesteko edo murrizteko modu bat da.

# ZEIN DIRA TOKIKO ENERGIA-KOMUNITATE BATEAN PARTE HARTZEAREN ABANTAILAK?

- ▶ Eredueko energetiko horretan parte hartuz gero, **urtean % 40ra murriztu** dezakezu argiaren faktura.
- ▶ **Zure merkaturatzaile elektrikoaren parte zara**, eta hitza eta botoa dituzu energia-komunitatearen barruan hartzen diren erabaki guztietan.
- ▶ Eredueko energetiko iraunkorra, **ingurumena errespetatzen duena eta buruaskia lortzen lagunduko duzu.**

## NOLA EGIN DEZAKET?

- ▶ Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak (**IDEA**) lan-ildo bati ekin dio **tokiko energia komunitateak bultzatzeko**. Horretarako, [gida](#) bat egin du, hura eratzeko eman beharreko pausoei eta [proiektu pilotuak finantzatzeko aukerarekin](#).
- ▶ [Goieneko Taldea](#) edo [Sapiens Energía](#), bezalako **kooperatiba energetikoek** eta [ECODES fundazioak](#) dagoeneko martxan dituzte **komunitate energetikoak sortzeko proiektuak**, eta zure proiektua garatzen lagundu diezazukete.
- ▶ Jakina, **Oarsoaldeko Energiaren Bulegoko** zerbitzuei eta langileei balia zaitezke prozesu honetan laguntzeko.

*Beste energia-eredu batzuk ezagutzeak aurreztu egin ditzake fakturak, ingurumenari laguntzen dion bitartean.*

*Zalantzarik baduzu edo aholkularitza pertsonalizatua nahi baduzu, jar zaitez harremanetan **Oarsoaldeko Energia Bulegoarekin.***

[energia@oarsoaldea.eus](mailto:energia@oarsoaldea.eus) | 943.494.129

*Zure esanetara gaude!*



n a i d e r